

H DBH2

2017/2018



Zuzenketarako Koaderno

Izen-deiturak:

Ikastetxea:


Taldea:

Herria:

Data:

Irakurmena

DBHko 2. maila



Jarraibideak

Proba honetan testu batzuk irakurriko dituzu eta irakurri duzunari buruzko galdera batzuei erantzungo diezu.

Galderak mota batekoak baino gehiagokoak dira. Galderetako batzuek lau erantzun dituzte aukeran, eta haietan zuzena dena aukeratu eta haren ondoan dagoen letra biribil batez inguratu behar duzu. Adibidez:

Zenbat biztanle ditu Iruñeak?

- A. Bartzelonak bezainbat.
- B. 200 000, gutxi gorabehera.
- C. Milioi bat.
- D. Zenbait milioi.

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu **X** batekin lehen erantzuna eta erantzun zuzena biribil batez ingura ezazu, ondoko adibide honetan egin den bezala:

Zenbat biztanle ditu Iruñeak?

- A. Bartzelonak bezainbat.
- B. 200 000, gutxi gorabehera.
- C. Milioi bat.
- D. Zenbait milioi.

Beste galdera batzuetan, aldiz, eskatuko dizute (E) egia edo (G) gezurra erantzutea edo erantzuna idaztea puntuak dituen gunean:

Zein da Iruñeko tokirik ezagunena?

.....




Proba hau egiteko 60 minutu dituzu.

GARTXOTEN ARRASTOARI SEGIKA

Garaileen eskutik idatzitako historiatik ihesean iritsi gara Elkorretako leizera. Bertako pareten artean iraun du, Gartxoten kondaira bihurtuta eta gaurdaino, euskaldunon erresistentziaren memoriak. Istorioa hain agerikoa ez den Euskal Herriaren historian barneratzeko aitzakia da. Segidan duzue Itzaltzutik kobarainoko ibilbidearen inguruko informazioa. Honela, testu honen bidez, kondaira bera, Zaraitzuko bailara eta bertako jendea ezagutzeko aukera izango duzue.

AITOR KALTZAKORTA @Kaltzakorta 2015eko maiatzaren 31a



Historiaren iturri ezkutuen emaria da Gartxoten kondaira. Arturo Kanpion idazle, historialari, politikari eta abokatu euskaltzaleak egin zuen ezagun 1917an argitara eman zuen *Itzaltzuko bardoa* idazlanarekin.

Gartxot XI. mendeko Itzaltzun bizi zen Erdi Aroko bardo edo koplaria izan zen. Idatzi ezin zirelako ahoz aho igorri behar izan ziren istorioak, tradizioak eta kondairak transmititzea

zuen lanbide, herriaren kultura eskutik eskura eta ahotik belarrietara eramanez. Boterean zeudenentzat arras kaltegarria zen hori, pospolo soil batek gaurik beltzenetan eragiten duen distira zabalaz ohartuta, horiek hedatu nahi ez zituzten mezuak zabaltu eta herritarrak ilunpetik ateratzeko arriskua eragiten baitzuen.

Lerro arteko ikasgaia

Gartxoten seme Mikelotek paregabeko dohaina zeukan eztarrian. Horregatik nahi zuen bereganatu Orreagako fraideak, berau abeslari erlijioso bihurtu eta haren ahotsa latinezko kantuetarako erreserbatzeko. Fraideak bahitu egin zuen Mikelot, eta bere nahikerien zerbitzura jarri. Hark fraidearen eskuetatik ihes egitea lortu zuen aitaren laguntzaz, eta Zaraitzuko mendietan ezkutatu ziren biak. Zaraitzuko Jaunak harrapatu egin zituen ordea, eta Gartxotek semea hil egin zuen, hitza eman baitzion ez zela beste behin bueltatuko elizgizonen mendera. Egindakoaren ordainetan Gartxoti bizi osoko zigorra ezarri zioten, eta berak hala erabakita, Elkorretako leizean eman zuen azken arnasa, 1110.eko udaberrian.

Azken finean, bere hizkuntza, izaera eta kultura babestu eta aitzinatu nahi dituen herri baten erresistentziaren lerro arteko kontakizuna da Gartxotena. Mapan ikusten ez den konkistari aurre egin ziotenen kontra da, hizkuntza ordezkapenarena, konkistaren erresistentziaren memoria.

Hamaika kilometro, hamaika ikasgai

Itzaltzuko plazan hasiko dugu euskal kulturaren sustraietaraino doan hamaika kilometroko bidea, Adrian Labadie Etxalarren bizi den artista holandarrak sortutako *Gartxoten tailua* paretik. Hiru ordu eta erdian egiten da, batez beste, 485 metroko desnibel nabarmena duen ibilbidea.


Errepidean barrena egin behar dira lehen urratsak. Kilometro batera, ezkerretara dagoen etxola ondoko pista hartuko dugu gora joateko. Bertako herritarren auzolanaren emaitza da seinaleztapen bikaina duen bidea. Ez da galtzerik Elkorretaraino.

Haritzen gerizetan jarraituko dugu gorantz, gerrako aterpe bateraino. Basoa zeharkatuko dugu zelaiak gure begien aurrean nola zabaltzen diren ikusi arte. Horrek Krutxeara iritsi garela esan nahi du. Mendebaldeko noranzkoan mendia zeharkatu eta basoa gurutzatuko dugu segidan, eta erreka bat pasa ondoren itzalik gabeko malda bat igoko dugu, Elkorretako haitzak ikusi arte. Errekara jaitsi, bertako turrusta edo ur-jauzi ezin ederragoa ikusi eta ehun metrora dago Elkorretako leizea. Gartxoten arnasa helmugara iritsi zen kobazuloan, ibiltariak aukera du erabakia hartzeko. Bidea bertan bukatu, ala atzera begiratzeko ispiluari orbanak garbituta, zenbait ikasgai bizkarrean jaso, motxilara batu, eta Itzaltzura berriz iritsi arte aurrera jarraitzea.

Auzolanean ekinez egina

Euskara sustatu, kondaira zabaldu eta auzolana bultzatzeko osatu zuten Gartxot Ekimena bailarako biztanleek, eta hainbat ekinaldi bultzatu dituzte urteotan. Elkorretarainoko bidea atondu eta ezagutzera ematea izan da lan horietako bat.

Itzaltzuren bilakaera berezia izan da, ez ohikoa. Izaba eta Otsagabia baino txikiagoa izan eta iparralderago egon arren, aipatu herrietan baino lehenago galdu zen euskara. Karabineroek ez zuten kuartelik, eta herrikoen etxeetan sakabanatu omen zituztenez, hizkuntza ordezkapen prozesua asko bizkortu zen. Egun, alta, gazteria bera ari da bere burua euskalduntzen, egoera hori iraultzeko xedearekin. Zentzu berean, garai hartan aduanek eta bestelako interesek galarazi zuten xiberotarrekiko harremana berreskuratzen hasi dira.



<http://www.argia.eus/argia-astekaria/2463/itzaltzu-nafarroa> (moldatua),

Aitor Kaltzakorta

1. Itzaltzutik kobarainoko ibilbidearen inguruko informazioarekin batera, zer ezagutu dezakegu?

.....
.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Erantzun bat ematea.
2	Bi erantzun ematea: - Gartxoten kondairaren istorioa. - Zaraitzuko bailararen inguruko informazioa. - Zaraitzuko jendearen inguruko informazioa. - ...

2. Nori esker ezagutzen dugu kondaira hau?

- A. Gartxoti esker.
- B. Mikeloti esker.
- C. Arturo Kanpioni esker.
- D. Orreagako fraideei esker.

3. Zergatik zen arriskutsua Gartxoten lanbidea boterean zeudenentzat? Eman itzazu **bi** arrazoi.

.....

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Arrazoi bat ematea.
2	Bi arrazoi ematea: <ul style="list-style-type: none">- Botereak hedatu nahi ez zituen mezuak zabaltzen zituelako.- Herritarrak ilunpetik ateratzeko arriskua eragiten zuelako.

4. Zergatik bahitu nahi zuen Orreagako fraideak Mikelot?

- A. **Oso ongi abesten zuelako.**
- B. Eztarriko gaitzak sendatzen zituelako.
- C. Abeslari erlijiosoa zelako.
- D. Latinezko kantuak bazekizkielako.

5. Testuan Gartxot hil egin dela esaten dute. Kopiatu testuan hori adierazten duten hitzak.

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	“Elkorretako leizean eman zuen azken arnasa”.

6. Zenbat denbora behar da ibilbidea egiteko?

- A. Hiru ordu eta erdi baino gehiago.
- B. Hiru ordu eta erdi baino gutxiago.
- C. Hiru ordu eta erdi.
- D. Hiru edo lau ordu.

7. Zergatik galdu zen hain bizkor euskara Itzaltzun?

- A. Izaba eta Otsagabia herrien arteko liskarrak zirela eta.
- B. Itzaltzu iparraldean zegoelako eta herritarrek emigratu zutelako.
- C. Gazteriak bere burua ez zuelako euskaldundu nahi.
- D. Karabineroak herrikoen etxeetan sakabanatu zituztelako.

8. Ordenatu kronologikoki hurrengo hauek:

- A. Gartxoten tailua, Mikeloten bahiketa, Elkorretarainoko ibilbidea eta *Itzaltzuko bardoa* idazlana.
- B. Mikeloten bahiketa, *Itzaltzuko bardoa* idazlana, Gartxoten tailua eta Elkorretarainoko ibilbidea.
- C. Mikeloten bahiketa, *Itzaltzuko bardoa* idazlana, Elkorretarainoko ibilbidea eta Gartxoten tailua.
- D. Elkorretarainoko ibilbidea, Mikeloten bahiketa, *Itzaltzuko bardoa* idazlana eta Gartxoten tailua.

TRISTEAK KONTSOLATZEKO MAKINA

Andolin Irakin ezagutzen ez zuen kristaurik ez zegoen Tolosan eta Tolosako inguruetan. Uzturre mendipeko baserri batean bizi zen bakar-bakarrik. Berak egosten zituen eguneroko babarrunak, berak garbitzen zituen bere galtzontzilo zikinak, berak konpontzen zituen teilatuko itoginak.

Inoren beharrik ez zuela, eta harro bizi zen Andolin Irakin. Baina bihotza oso ona zuen Andolin Irakinek, txahal txikiaren txuleta bezain samurra, Santa Maria elizako atea bezain zabala. Eta jendeari laguntzea gustatzen zitzaion. Asmatzaile trebea zen Andolin Irakin eta gauzak asmatu, ongi asmatzen zituen, gero ezertarako balio ez bazuten ere.

Behin surik gabe arrautzak frijitzeko padera asmatu zuenean bezala. Padera normal bat zen, edozein etxetakoa bezalakoa, baina paderaren ipurdian kaxa moduko bat zegoen. Kaxan katu bat eta sagu bat sartu zituen. Hauen korrikaren, ihesaren eta harrapatu nahiaren berotasunez frijitu nahi zituen arrautzak. Baina arrautza frijitzerako katuak sagua jan zuen, eta gero bapo etzan zen siesta ederra egitera digestioa egiteko.

Beste behin kristalezko txapela asmatu zuen, baina asmakizun horrek ere ez zuen ezertarako balio izan, eguzkiak bete-betea jotzen baitzuen kristalean eta inoiz baino gehiago berotzen zelako Andolin Irakinen kaskazuria.

Behinaren beste behinean, gurpildun zapatak asmatu zituen, baina Andolin Irakinek ez zekien patinetean ibiltzen, eta ipurdiko latzak hartu zituen; ganbaran gorde zituen gurpildun zapatak, haiekin ibiltzen ez zuela inoiz ikasiko eta.

Azken behinean, berriz, Tolosako jendea oso triste bizi zela, tolosarrek ez zutela zoriona zer zen arrasto pikorik, eta tristeak kontsolatzeko makina asmatu zuen. Ilargi beteko eta ilargi berriko gau asko eta asko pasatu zituen makina asmatzen lehendabizi eta makina egiten gero.

Halako batean, hamaika ilargi beteren ondoren, hamaika ilargi berri igaro zirenean, tristeak kontsolatzeko makina bukatu zuen. Tramankulu handia zen, zapata kaxa ikaragarri baten antzekoa. Alde batean zulo bat zuen eta bestean marmita bezalako ontzi bat, eta ontziaren ipurditik tutu bat iristen zen beste aldeko zuloraino. Marmitaren parean, berriz, margo guztietako botoiak zeuden.

Uzturretik Tolosara jaitsi zen igande goiz batez, eta plazaren erdian ipini zuen tramankulua. Andolin Irakin jendeari deika hasi zen:

– *Mesedez, faborez eta arren, geldi zaitzete hemen!*

Halako batean bi mutil koskor mukizu gerturatu zitzaizkion. Batek galdetu zion:

– Zertarako da katxarro hori?

– Hau ez da katxarroa –Andolin Irakinek sua zeriela zituen begiak–, tristeak kontsolatzeko makina da. Zu ez al zaude triste, eh?, zu ez al zaude triste?

– Beno... –begiak makurtu zituen mutikoak–, bai, triste nago, bihar astelehena delako eta ikastolara joan behar dudalako. Gainera, gaur nire amak ez dit pagarik eman nota txarrak atera ditudalako, eta ezin dut gozokirik erosi.

Eta negarrez hasi zen mutikoa. Andolin Irakinek makina inguratu zion, eta marmitaren antzeko ontzia ipini begien parean. Malkoak marmitara erori ziren, gero tututik pasatu, eta azkenean era guztietako gozokiak irten ziren beste aldeko zulotik.

Pozik zegoen mutikoa. Salto ederrak eman zituen behintzat! Gozoki *tristeenak* lagunari eman eta Tolosako kaleetan zehar abiatu ziren biak Tristek Kantsolatzeko Makinaren miraria aldarrikatuz.

Jendea inguratzen hasi zitzaion Andolin Irakini, hasieran sinesgaitz, gero eta fede gehiagoz ondoren.

– Zer gertatzen zaizu zuri? –galdetu zion Andolin Irakinek gazte mardul, ile kizkur bati.

– Niri...? Ez dakidala gaur arratsaldean Anoetara nola joan, eta futbola ikusi gabe geratuko naizela.

Negarrez hasi zen gazte mardul, ile kizkurra. Andolin Irakinek marmita ipini zion begien parean, malkoak erori ziren bertara, pasatu ziren malkoak marmitatik tutura, eta tututik zulora. Zulotik zer irtengo, eta Anoetako tribunarako sarrera bat.

Atso bat hasi zen negarrez ondoren. Zer ote zuen galdetu zion Andolin Irakinek marmita begien parean jartzen zion bitartean, eta atsoak:

– Gaur igandea dela, jende guztia dotore-dotore dabilela, eta nik ez dudala soineko ziztrin hau besterik.

Tristek Kantsolatzeko Makinaren zulotik zer irtengo, eta zapata takoi altu txarolezko finak, galtzeta sedazkoak, bolante arinak, gona plisatuak eta hiru gabardina.

Doministiku asko egiten zuen batentzat berrogeita bat musuzapi, tripaundi batentzat tripa disimulatzeko danborra, Tolosako alkatearentzat ibaira arrosa usaineko koloniak botatzen zituzten paper fabrikak, ezer saltzen ez zuen dendari egoskor batentzat sekulako irribarre gozoa, eta beste mila milioi gauza pozgarri irten ziren Tristek Kantsolatzeko Makina haren zulotik.

Tolosa guztia pasatu zen makinaren aurretik, eta bertan isuri tolosarrek begietan zituzten malko guztiak.

Gau hartan Andolin Irakin etxeratu zenean, pozez zorutzen zegoen tolosarrak zoriontsu egin zituelako, eta herriz herri ibiliko zela erabaki zuen euskaldunek alaitzeko premia galanta zuten eta. Eta hain poz handia zuenez, negar egin zuen zorionaren zorionez, negarraren malkoak makinaren marmitara erori ziren, marmitatik tutura, tututik zulora, eta handik zer irtengo, eta garbigailua irten zitzaion.

Harrezkero, garbigailuak egin zion gutxien atsegin zitzaion lana, eta ez zuen gehiago Andolin Irakinek galtzontzilo zikinik garbitu.

Anjel Lertxundi, *Tristek kantsolatzeko makina*

9. Adierazi esaldi honen esanahia: “Andolin Irakin ezagutzen ez zuen kristaurik ez zegoen”.


- A. Jende guztiak ezagutzen zuen Andolin.
- B. Jende asko ezagutzen zuen Andolinek.
- C. Andolin ezezaguna zen.
- D. Andolini jendea ezagutzea gustatzen zitzaion.

10. Nolakoa da Andolin Irakin?

- A. Txikia eta asmatzailea.
- B. Bihotz onekoa eta asmatzailea.
- C. Harroa eta gaiztoa.
- D. Harroa eta zabala.

11. Lotu ezazu asmakizun bakoitza bere ezaugarri eta arazoarekin hirukoteak osatuz.

Erabili beharreko hitzak:



Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Hirukote bat edo bakar bat ere ez.
1	Bi hirukote ongi.
2	Hiru hirukoteak ongi.

12. Zenbat asmakizun agertzen dira testuan?

- A. Hiru.
- B. **Lau.**
- C. Bost.
- D. Bi.

13. Zenbat denbora pasatu zuen Andolin Irakinek Tristeak Kontsolatzeko Makina asmatzen eta egiten?

- A. Ilargi bete gau bat.
- B. Ilargi berri gau bat.
- C. Gau gutxi.
- D. **Gau asko.**

14. Zein da Andolin Irakinek jendearen interesa pizteko erabiltzen duen poema errimaduna?

.....
.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	<i>Mesedez, faborez eta arren, geldi zaitetzte hemen!</i>

15. Tramankulu hitzaren zein sinonimo agertzen da testuan?

- A. Marmita.
- B. **Katxarro.**
- C. Tutu.
- D. Eraikuntza.

16. Zer eskaini zion makinak Andolini?

- A. **Garbigailua.**
- B. Berrogeita bat musuzapi.
- C. Irribarre gozoa.
- D. Galtzontzilo garbiak.

PIKNIK BATERAKO MENUA

Hasi gara sumatzen eguzkiaren indarra, temperatura gora doa eta piknikak berriz jarri dira boladan. Hondartzan, mendian edo parkean, beti da dibertigarria elikagai gustagarriak partekatzea lagunekin edo familiarekin. Modu egokian antolatzeko eta ustekabeko txarrik ez gertatzeko, komeni da elikagai seguruak hautatzea, temperatura jakin batzuetan ongi iraungo dutenak. Garrantzitsua da izotzak eramatea eta eskuko hozkailu bat, itzala dagoen lekuren batean jartzeko. Ez da komeni izaten elikagai gordinak eta prestatuak nahastea (kutsadura gurutzaturik ez gertatzeko); horrekin batera, barazkiak etxetik garbituta eramatea komeni da eta arazotsuak izan daitezkeen elikagaiak etxean uztea, adibidez mahonesa. Elikagaiak garraiatzeko modurik onena, berriz, bakoitza bere ontzian sartzea eta hermetikoki ixtea da.

Zenbat kaloria behar ditugu egunaren buruan?

	Kaloria guztien %	Gure proposamena	Kalorien %
GOSARIA	%20-25 (400-500 kcal)	- Arroz puztua eta fruitu lehorrak Jogurt likidoa fruta mamiarekin	%30 (501 kcal)
HAMAIKETAKOA	%5-10 (100-200 kcal)	- Bi mandarina - Hurrak	%6 (100 kcal)
BAZKARIA	%30-35 (600-700 kcal)	- Andaluziar gazpatxo ^(*) - Patata eta txorizo tortilla ^(*) - Gurinik gabeko gailetak, anana eta mahaspasekin ^(*)	%37 (604 kcal)
ASKARIA	%5-10 (100-200 kcal)	- Jogurt gaingabetua, frutaduna - Banana	%3 (46 kcal)
AFARIA	%20-25 (400-500 kcal)	- Azenario eta kuintxo krema - Hegaluze tortilla piper berde eta tipularekin - Osoko gari ogia - Arana	%24 (395 kcal)
GEHIENEZ	2000 kcal		

(*) Errezetak 24. orrialdetik aurrera.

Lehen platera

ANDALUZUAR
GAZPATXOA



Bigarren platera

PATATA ETA TXORIZO
TORTILLA



Hirugarren platera

GURINIK GABEKO
GAILETAK, ANANA ETA
MAHASPASEKIN



Consumer, 2016ko ekaina (moldatua)

17. Testuaren arabera, noiz egiten dira piknikak?

- A. Eguraldi ona egiten duenean.
- B. Familiak edo lagunek ahal dutenean..
- C. Familia eta lagunekin janaria partekatu nahi dugunean.
- D. Mendira edo hondartzara joan nahi dugunean.

18. Zer da “piknik”? Testuan oinarrituta, eman zure hitzetan “piknik” hitzaren definizioa edo azalpantxo.

.....
.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Definizio edo azalpen laburra ematen du. Adibidez: otordua, hondartzan hartzen den otordua,...
2	Definizio edo azalpen osoagoa ematen du. Adibidez: hondartzan, mendian edo parkean lagunekin edo familiarekin hartzen den otordua.

19. “Modu egokian antolatzeko eta ustekabeko txarrik ez gertatzeko, elikagai seguruak hautatzea komeni da”. Zertan ari da igorlea?

- A. Aginduak ematen.
- B. Gomendioak ematen.
- C. Informazioa ematen.
- D. Argudioak ematen.

20. Zein da testuan agertzen den “gordinak” hitzaren antonimoa?

- A. Onak.
- B. Kutsatuak.
- C. Seguruak.
- D. Prestatuak.

21. Testuaren arabera, zenbat otordu egin behar dira egunean zehar?

- A. Hiru.
- B. Lau.
- C. Bi.
- D. Bost.

22. Kalaria gehien hartu behar den otorduan, zein menu proposatzen digu testuak?

- A. Andaluziar gazpatxoa, patata eta txorizo tortilla eta banana.
- B. Arroz puztua eta fruitu lehorrak eta jogurt likidoa fruta mamiarekin.
- C. Andaluziar gazpatxoa, patata eta txorizo tortilla eta gurinik gabeko gailetak, anana eta mahaspasekin.
- D. Azenario eta kuintxo krema, hegaluze tortilla piper berde eta tipularekin, osoko gari ogia eta arana.

23. Fruta noiz jan behar da?

- A. Gosaltzeko.
- B. Hamaiketakoan.
- C. **Otordu guztietan.**
- D. Hamaiketakoan eta gosarian.

24. Zer adierazten du plater batzuen ondoan idatzita dagoen izartxoak (*)?

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Hauetako edozein: - Aldizkarian plater horiek nola prestatu azaltzen dutela. - Aldizkarian plater horiek prestatzeko errezetak daudela.